



## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Ederki morroi on eta leiala”

2020ko azaroaren 15  
Urteko 33. igandea (A)

Mateo 25, 14-30

“Jainkoaren erregetzarekin, atzerrira irten behar zuen gizonarekin bezala gertatzen da. Bere morroiei dei egin eta ondasunak utzi zizkien: bati bost talentu, beste bati bi eta besteari bat, bakoitzari bere trebetasunaren arabera. Gero, alde egin zuen. Bost talentu hartu zituenak inbertitu egin zituen berehala eta beste bost irabazi. Orobat bi talentu hartu zituenak: inbertitu eta beste bi irabazi zituen. Bat bakarra hartu zuenak, aldiz, lurrean zuloa egin eta bertan gorde zuen nagusiaren dirua.

“Handik denbora askora, etorri zen nagusia eta morroiei kontuak hartzen hasi zitzaion. Aurreratu zen bost talentu hartu zituen eta beste bost aurkeztu zizkion, esanez: “Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; hona beste bost nik irabaziak”. Nagusiak esan zion: “Ederki, morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan haiz, askoren buru ipiniko haut; sartu heure jaunaren festa ospatzera”. Aurreratu zen, gero, bi talentuduna eta esan zion: “Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; hona beste bi nik irabaziak”. Nagusiak esan zion: “Ederki morroi on eta leiala! Gauza gutxian leial izan haiz, askoren buru ipiniko haut; sartu heure jaunaren festa ospatzera”. Aurreratu zen talentu bakarra hartu zuena eta esan zion: “Banekien gizon zorrotza zarena, erein ez duzun tokian hartzen eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna; beldur nintzen, eta zure talentua lurrean ezkutatu nuen. Hona zeure dirua!” Nagusiak erantzun zion: “Ai morroi gaizto eta alferra! Bahekien erein ez dudan tokian hartzen dudana eta zabaldu ez dudan tokian biltzen. Beraz, bankuan jarri behar huen nire dirua, itzultzean bere korrituekin jaso nezan. Ken iezaiozue, bada, talentua eta eman hamar dituenari. Izan ere, fruitua dakarrenari eman egingo zaio, eta gainezka izango du; fruiturik ez dakarrenari, ordea, daukan apurra ere kendu egingo zaio. Eta ezertarako gauza ez den morroi hau jaurtiki kanpora, ilunpetara. Negarra eta hortz-karraska izango dira han”.

Gauza gitxian leiala izan zaralako, zatoz zure Jaunaren mahaira.  
Jaunagaz betirako aurkitzen garanean, gure doaiak zelan erabili ditugun galdetuko deusku.

## EZ LUR AZPIAN SAR GEURE ERANTZUKIZUNA

Jose Antonio Pagola

Kontakizun irekia da talentuen parabola, askotara irakurtzeko aukera ematen du. Izatez, iruzkingileek eta predikariek zentzu alegorikoan hartu izan dute sarritan, norabide desberdineko zentzuan. Garrantzizkoa dugu hirugarren zerbitzariaren jarduerari begi-ematea, hari ematen baitzaio arretarik eta lekurik handiena parabolari.

Bitxia da haren jokabidea. Beste hiru zerbitzariak nagusiak gomendatu dizkien ondasunei fruitua non emanaraziko hasi diren bitartean, hirugarrenari ez zaio otu jaso duen talentua «**lur azpian ezkutatzea**» baizik, seguru gorde ahal izateko. Nagusiak, iritsi denean, zerbitzari «**axolagabe eta alfertzat**» gaitzetsi du, ezer ulertzen ez duen zerbitzaritzat. Nondik norakoa da, ordea, zerbitzari horren portaera?

Ez du bat egin nagusiarekin, ezta haren interesekin ere. Ez du jokatu maitasunez une batean ere. Ez du maite nagusia, beldurra dio. Beldur horrexek eragin dio, hain zuzen, segurtasun bila jardutera. Berak argitu du guztia: «**Beldur izan nintzen eta talentua lur azpian gordetzera jo nuen**».

Zerbitzari honek ez daki zertan datzan bere egiazko erantzukizuna. Uste du ezen nagusiaren itxaropenari erantzuten ari dela, talentua seguru gordez, nahiz guztiz agor izango den. Ez daki zer den leialtasun eginkor eta sortzailea. Ez du parte hartu nahi nagusiaren egitasmoan. Etorri denean, argiro esan dio nagusiari: «**Hor duzu zeurea**».

Pentsatzen denean ezen kristautasuna iritsia dela puntu batera, non funtsezkoena «**gordetzea**» dela uste baita eta ez, inolaz ere, adorez eta Jaunarekiko konfiantzaz, bide berriak urratzea, Jainkoaren erreinuaren egitasmoa onartu, bizi eta hots egiteko, orduan ahaztu egiten dugu zein den gure benetako erantzukizuna.

Sekula sentitzen ez badugu Kristoren eskakizunak jarraitzea deituak garela, beti irakatsi eta agindu digutena baino harago joanez; ez badugu ezer arriskatzen Jesusekiko leialagoa izango den Eliza burutzeko; bitzita korapilatu diezagukeen edozein bihotz-berrizetik urrun gelditu nahi badugu; erreinuarekiko erantzukizuna geure egiten ez badugu, Jesusek egin zuen bezala, «**ardo berria zahagi zaharretan**» bilatuz; ... seinalea ezen ikasi beharrean garela zertan datzan Jesusek parabolari adierazi digun leialtasun eginkor, sortzaile eta arriskutsu hori.